

Ohar hau berrikusi da elikagaietan espezializatutako establezimenduen seriearen deflazio-prozesuan izandako akats baten ondorioz


Txikizkako sektoreko salmentak % 0,4 jaitsi dira 2021eko lehen hiruhilekoan Euskal AEn

Aurreko hiruhilekoaren aldean, salmentek ez dute aldakuntzarik izan (% 0,0)

Eustatek landutako datuen arabera, 2021eko lehen hiruhilekoan, Euskal AEko txikizkako merkataritzaren sektorean salmentak % 0,4 murriztu dira, aurreko urteko hiruhileko beraren aldean, egutegiaren eraginak atera ondoren eta prezio konstanteetan. Gasolindegia kontuan hartu gabe, sektoreko salmentak 2020ko lehen hiruhilekoko maila berean mantendu dira (% 0,0ko urte arteko aldakuntza).

Aurreko hiruhilekoarekin alderatuta, eta urtaro-eraginak kenduta, 2021eko lehen hiruhilekoko salmenta-indizea ez da aldatu (% 0,0ko hiruhileko arteko aldakuntza).

Euskal AEko txikizkako merkataritzaren indizearen urte-arteko aldakuntza-tasa (%)



Iturria: Eustat. Txikizkako merkataritzaren indizea (BMIT)

Sektoreka, 2020ko lehen hiruhilekoarekin alderatuta, eta prezioen eta egutegiaren eraginak kendurik, *Automobilgintzarako erregaiaren* salmentak % 5,3 jaitsi dira 2021eko lehen hiruhilekoan, eta *Elikagaien* salmentak % 1,4. *Gainerako produktuen* salmentak, aldiz, % 1,4 igo dira. Kontuan izan behar da ezen 2020ko martxoaren 14an alarma-egoera ezarri zela COVID19aren pandemiari aurre egiteko eta horrek aldaketa handia ekarri zuela txikizkako merkataritzaren sektorearen jardueran.

2020ko laugarren hiruhilekoarekin alderatuta, urtaro-eraginik gabeko terminoetan eta prezio konstanteetan, *Elikagaien* salmentak % 0,6 jaitsi dira; *Automobilgintzarako erregaia* eta *Gainerako produktuetan*, berriz, salmentak % 1,4 eta % 0,7 igo dira, hurrenez hurren.

Elikagaien txikizkako merkataritzaren barruan, *Elikagaietan*, *edarietan* eta *tabakoan* espezializatutako merkataritza (hala nola fruta-dendak, harategiak, arrandegiak, etab.) % 1,6 murriztu da 2020ko lehen hiruhilekoarekin alderatuta; halaber, *Elikagaiak*, *edariak* eta *tabakoa* nagusi diren txikizkako merkataritza ez-espezializatua (batez ere supermerkatu eta hipermerkatuak) % 1,3 jaitsi da.

Euskal AEko txikizkako merkataritzaren indizea. Urte arteko eta hiruhile arteko aldakuntza-tasa. I/2021 (p)

	PREZIO FINKOAK		
	t / t-4	t / t-1	A (t) / A (t-4)
INDIZE OROKORRA lurralde historikoaren arabera			
Euskal AE	-0,4	0,0	-0,4
Araba/Álava	4,0	1,2	4,0
Bizkaia	-1,3	-0,3	-1,3
Gipuzkoa	-1,2	-0,1	-1,2
INDIZE OROKORRA sektorearen arabera			
Elikagaiak	-1,4	-0,6	-1,4
Elikagaietan espezializatuta	-1,6	-0,4	-1,6
Ez espezializatuta, elikagaidunak bereziki	-1,3	-1,5	-1,3
Beste produktuak	1,4	0,7	1,4
Pertsonen hornikuntzan espezializatuta	-9,0	5,2	-9,0
Etxearen hornikuntzan espezializatuta	16,5	3,7	16,5
Beste kontsumo ondasun batzuetan espezializatuta	6,0	0,6	6,0
Ez espezializatuta, gainerako produktudunak bereziki	-2,6	1,0	-2,6
Automoziorako erregaia	-5,3	1,4	-5,3
SALMENTEN INDIZEA zerbitzugunerik gabe	0,0	0,0	0,0
ENPLEGU INDIZEA			
Euskal AE	-4,4	-1,3	-4,4

(p) behin-behineko datuak

t / t-4 Urte arteko aldakuntza. Egutegiaren eragina zuzendutako datuak

t / t-1 Hiruhile arteko aldakuntza. Datu desestazionalizatuak

At/A(t4) Lehen hiruhilekotik behatutako azkenekora arte metatutako aldiko urte arteko tasa (At) aurreko urtean metatutako aldi beraren aldean

Iturria: Eustat.Txikizkako merkataritzaren indizea (BMIT)

Gainerako produktuen txikizkako merkataritzan, prezio konstanteetan eta egutegiaren eraginak zuzendu ondoren, 2021eko lehen hiruhilekoko salmenten bilakaera askotarikoa izan da 2020ko hiruhileko berarekin alderatuta. Hala, *Etxeko ekipamenduan espezializatutako* merkataritza (besteak beste, etxetresna elektrikoak, altzariak eta telekomunikazioetako ekipoak) % 16,5 igo da, eta *Kontsumoko beste ondasun batzuetan espezializatutako* txikizkako merkataritza (adibidez, liburuak, papergintzako artikulak, jostailuak eta kirol-artikulak) % 6,0 igo da. Aitzitik, *Pertsonaren ekipamenduan espezializatutako* merkataritza (jantziak, oinetakoak eta farmaziako produktuak, adibidez) % 9,0 jaitsi da, eta *Gainerako produktuak nagusi dituen espezializatu gabeko* merkataritzak % 2,6 egin du behera.

Lurraldeka, 2021eko lehen hiruhilekoko salmenta-indizeak urte arteko % 4,0ko igoera izan du Araban; Gipuzkoan eta Bizkaian, berriz, % 1,2 eta % 1,3 jaitsi da, hurrenez

hurren. Hil arteko bilakaera antzekoa izan da, baina intentsitate txikiagokoa: Araban % 1,2 igo dira salmentak, Bizkaian % 0,3 jaitsi dira, eta Gipuzkoan % 0,1 beheratu dira.

Euskal AE osoan txikizkako merkataritzaren sektorean lan egiten duen pertsona-kopurua % 4,4 jaitsi da 2021eko lehen hiruhilekoan, aurreko urteko lehen hiruhilekoaren aldean. 2020ko laugarren hiruhilekoarekin alderatuta, % 1,3 jaitsi da.

INFORMAZIO OHARRA

Indize ekonomiko koiuntural honetan eta beste indize ekonomiko koiuntural batzuetan kontuan hartzen diren langile enplegatuen artean, Enplegua Aldi Baterako Erregulatzeko Espedienteak (EABEE) duten pertsonak sartzen dira, Europar Batasuneko Estatistika Bulegoak (Eurostat) [Methodology of Short Term Business Statistics](#) eskuliburuan jasotzen duen enpleguaren definizioari jarraituz.

Egutegiaren eraginak zuzentzeko eta serieak urtaro-eraginik gabe uzteko erabilitako modeloek COVID-19ak aztertutako aldagaietan duen eragina barne hartzen dute, Europar Batasuneko Estatistika Bulegoak (Eurostat) [Guidance on Time Series Treatment in the context of the COVID-19 crisis](#) ohar metodologikoan emandako gomendioei jarraituz.

Eustatek eskerrak eman nahi dizkie informazioa biltzen lagundu duten establezimendu guztiei. Haiei esker, lehen hiruhilekoko indizea laginaren % **93,3ko estaldurarekin** kalkulatu da –informazio hori apirilean jaso da–.

Informazio gehiagorako:

Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística
Donostia-San Sebastián, 1 01010 Vitoria-Gasteiz
Prentsa-zerbitzua: servicioprensa@eustat.eus Tlf: 945 01 75 62